

## **Doinu zikinak - "Bost axola"**

Soinu-paisaia

Fatih Aydogdu

Kultura zuriak beti aldarrikatu du aginte arautzailea, bere kultur praktikak "erregular" moduan identifikatuz eta besteenak ukatuz "anormalak" direlakoan. Horretarako betikotu egiten du "nortasun zuria" markatu gabeko kolektibo gisa diskurtso sozial, legal eta politikoetan, eta "bestea" kategorizatu, kodetu eta "desberdintasunak" markatutako kolektibo gisa. Musikaren barruan, arrazaren arabera bestekotzeko prozesu hori "doinu zikinak" kontzeptuan agertzen da.

XIX. mendeko musika mendebaldarraren kritikariek, bestelakotasuna azpimarratuz eta bestea debaluatuz, musikari beltzek talde batean jotzeko zuten ezgaitasunari "doinu zikinak" sortzea ipini zioten etiketa. Suposatzen zen musikari haiek modu okerrean jotzen zutela espero zen tonura moldatzen ez zirenean. Eskala tonal zurrun batekiko atxikimendua izan da luzaro erreferentzia musika klasiko europar/mendebaldarrean. Tasun horrek, ordea, ez du oinarri estruktural zein estatistikorik afrikar, asiarrak eta afroamerikar musikan.

XIX. mendearen amaieran, jazzak, langile beltz immigranteekin batera, mugitu egin zen Estatu Batuetako Hegoaldetik Iparraldera, eta erotiko haustura eragin zuten entzuteko ohituretan. Entzule zuriek -iraganekoek eta oraingoek- "zikin" sumatzen zuten musika hura. Ohituta baitzeuden euro-amerikar mono-erritmora, entzule zuriek ezin zuten ulertu afro-asiar musika tradizioen konplexutasun erritmikoa; entonazio zehatzak, melodiazko zati errepikaturik ezak eta inprobisazio kolektiboen bizitasun ikaragarriak arazoak sortzen zizkien jazzak dantzarako musika eskaini behar zuela espero zutenei. Entzule

## dig me out

zuriek ulertu ez arren, hala ere musikari beltzak bilatzen zituzten, jakin-minez eta gozamen exotikoz.

Atzera begira, "doinu zikinak" musikari beltzek Afrikako musika tradizioen eredu pentatonikoak musika estilo berriagoetan txertatzeko egindako ahaleginen fruitua dira. Tonua, esate baterako, esanahi erabat desberdina du Afrikako eta Europako kantuan. Afrika mendebaldeko hizkuntza askotan, esanahi gramatikalak mintzatutako silaba baten tonuaren arabera izaten dira; horrenbestez, melodia bat ezin konposa daiteke bere testuinguru gramatikaletik bereizita. Hau ez da aitortzen "doinu zikinak" kontzeptu barruan.

Musika tradizio ez-europarren aurkako aurreiritzien adibide askoz gehiago daude Mendebaldeko musikologian. Esate baterako, esentzialismoa agertzen da zenbait fenomeno -hala nola "tempo ahuleko" teknikak, polierritmikoak eta polimetrikoak- era desegokian sinkopatu gisa kategorizatzean. Afrikako musika herrikoia gaizki ulertzea orobat gertatzen da erritmoa sexualitatearekin harremanean jartzean. Afrikako testuinguru askotan, musika jo eta entzuteak musikarien, entzuleen eta dantzarien gorputzen parte hartze aktiboa eskatzen du, musika terminoetan, sexu terminoetan baino areago. Baina eskua altxatu eta danborraren partxe gainean erortzen denean, musika afrikarreko erritmo bat gogo beroz deskribatzen da ekintza gisa. Interpretazio oker hori Europako kultur ideologia garaiaren fruitua da eta musikari beltzek "musika odolean" daramatela dioten premisa arrazista elikatzen du.

Tempo ahuleko fraseatzea, bai gainjartze polierritmiko eta polimetrikoa ere entzun, identifikatu, ulertu eta geografikoki kontestualizatzeko Mendebaldean sozializatutakoek duten ezgaitasunak musikari beltzen irudikapen okerrak elikatu ditu musika zuriaren historian zehar. Adibide hauek erakusten dute zuritasuna ez dela kolore kontua, estatus sozial jarraituarena

**dig me out**

baizik; arraza pribilegioek eta aginteak definitzen dute  
oraindik ere afrikar, asiar eta afro-amerikar musika estiloak  
arau zuriaren arabera.

Itzulpena: Sabine Strasser